

**2002KO MAIATZAREN 30EKO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta biko maiatzaren hogeita hamarreen, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estensoro Eskisabel, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar, Joseba Hernandez Madinabeitia, Jon Agirre Garmendia, Urko Irastortza Aldanondo eta Juan Manuel Serna Portugal.

José Luis Otamendi Romero zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2002ko apirilaren 25ean egindako bilkurako akta.

Agirre zinegotziak (EH) esaten du bilera 7etan hasi zela jartzen duela aktak baina 7 terdietan hasi zela.

Aipamen hau egin ondoren, gainontzean akta idatzita dagoen moduan onartzen da.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- UDALETXE ATZEKALDEA ETA ELOSEGI 11 ZBK.TIK 13 ZBK.RA BITARTEKO GUNEKO OBRA ARRUNTEN PROIEKTUA ETA BERAU BURUTZEKO OKUPATZEA BEHARREZKO DIREN ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDAREN BEHIN-BETIKO ONARPENA.-**

2002ko urtarrilaren 9ko alkatetzaren ebazpen bidez, Alkatetzak Udaletxe atzekaldea eta Elosegi 11 zbk.tik 13 zbk.ra bitarteko gunearen obra arrunten proiektua eta aipatu proiektua burutzeko okupatzea beharrezko diren ondasun eta eskubideen zerrenda haserakoz onartzea, lurren okupazio ondorioetarako 1998ko azaroaren 24ko Diputatuen Kontseiluan emandako 1 Hirigintz Areako Barne Eraldakuntzako Berariazko Egitasmoaren behin betiko onarpenarekin herri erabilera aitortzea eginga dagoela jotzea eta Derrigorrezko Jabetza Kentze Legearen 18. artikuluan adierazi moduan erabakia argitaratzea eta espedientean interesatu moduan azaltzen diren guztiei banan banan jakinarazpenak egitea ebatzi zuen.

Ondoren Tolosako Jabetza Erregistrora ukitutako finkei buruzko jabetza, deskripzio eta zamei buruzko ziurtagiria, eta ziurtagiri hori luzatu izanaren alboko

...///...

...///...

oharpena egitea eskatu zen. Jabetza Erregistroak egindako ziurtagirian udalak zituen datuekiko aldaketak zeudela ikus ziteken.

Horren aurrean eta 2002ko otsailaren 19ko alkatetzako ebazpen bidez, Alkatezak ondasun eta eskubideen zerrendaren zenbait datu aldatu eta gainontzekoa berrestea ebatzi zuen.

Halaere esan behar da bigarren ebazpen honetan egindako zuzenketetan akats bat egin zela, 1 zki.dun Finkan okupatuko den azalera 98,50m<sup>2</sup> izango zirela jartzerakoan, okupatuko den azalera 49,25m<sup>2</sup> izango bai da, lehenengo ebazpenean jartzen zuen bezala.

Jendaurre erakustaldi denboraldian proiektuaren aurkako alegazio idatzi bakar bat jaso da, Joxe Mari Aranburu, Mari Karmen Aranburu eta Alejandro Arakamak izenpetutakoa.

Alegazio horren aurrean proiektuaren egilea den Roberto Garcia Azpiri, udal arkitektoak, bere txostena egin du. Txostenak honela dio:

#### ALEGAZIOAREN EDUKINA

- 1.- Orain dela hilabete terdi Alkatearekin bilera bat izan zutela adierazten da eta bilera honetan atzekaldeko ordenamendua denboran luzatu egingo zela eta dena dela berririk izaten zenean abisatuko zitzaiela esan zitzaiela.
- 2.- Beraien etxea bere atariarekin kontsolidatuta dagoela AA.SS.en arabera eta orain 1/200 eskalako planoetan azaltzen denez, atari gehienaren jabetza kendu egiten zaiela.
- 3.- Espaloi berriak soilik 75 zm. uzten ditu "Erosle"ko lokaleraino.
- 4.- Gaur egun "Erosle"ren lokala 40 zm. azpitik gelditzen da eta aterapide berriarekin berriz espaloitik 1,10 m. ra geldituko litzateke.
- 5.- Planuetan ikus daiteken bezala ormigoizko kontrahorma ezingo litzateke ikutu.

#### ALEGAZIOARI KONTSIDERAZIOAK

- 1.- Ez dagokio baloraio teknikorik.
- 2.- AA.SS.ek 1 Hirigintz Areako arau fitxari dagokion planoan, eraikina "ordezkatzeko modukoa" bezala kalifikatzen dute eta gaur egungo atariak ia erabat izkutatu egiten dira. AA.SS. zehaztapenen garapenean 1 H.A.ko Barne Eraldakuntzako Berariazko Egitasmoak eraikin berriaren lerrokadurak finkatzen ditu eta eraikinaren ataria "gune libreen sistema lokal (pasealeku eta erreka bazterrera bidea)" moduan kalifikatzen du.
- 3.- Halaxe da, espaloi berriak 75 zm. uzten ditu bertatik "Erosle"ren lokalera, baina puntu kaltegarrienean, ormigoizko kontrahormaren ondoan.
- 4.- Proiektuan proposatzen den ordenamendu berrian lur-arrasa gutxi gora-behera 30 zm. igotzen du eta horrekin merkatal lokala gehienera ere behin betiko lur-arrasetik 70 zm.tara geldituko litzateke.

...///...

...///...

5.- Proiektuan proposatzen den bezala ormigoizko kontra-horma ez da ukitzen.

Alkateak esaten du proposamena proiektua dagoen bezala onartzea dela baina beraiekin hitzegin duela eta obra burutzeko garaian Udala saiatuko dela beraiei egiten zaien ukipena ahalik eta txikiena izan dadin.

Guzti honen aurrean, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

- 1.- Joxe Mari Aranburu, Mari Karmen Aranburu eta Alejandro Arakamak izenpetuta aurkeztutako alegazioa ez onartzea.
- 2.- Udaletxe atzekaldea eta Elosegi 11 zbk.tik 13 zbk.ra bitarteko gunearen obra arrunten proiektua behin betikoz onartzea.
- 3.- Udaletxe atzekaldea eta Elosegi 11 zbk.tik 13 zbk.ra bitarteko gunearen obra arrunten proiektua burutzeko okupatzea beharrezkoa den ondasun eta eskubideen zerrenda behin betikoz onartzea derrigorrezko jabetza kentze espedientea hasiz onarpen honekin. Onartzen den zerrenda honako hau da:

#### **1 zki.dun Finka**

Higiezinaren deskribapena: "Zubiaurre del Medio o Boticaechea" bezala ezagutzen den etxearen aurrekaldea.

Jabeak: Maria Arakama Inza, Jose Maria Aranburu Arakama, Maria del Carmen Aranburu Arakama eta Alejandro Arakama Inza.

Okupatuko den azalera: 49,25m<sup>2</sup>

Inskribapena: Tomoa:125

Liburua: Lazkaoko 4

Folioak: 66 eta 97 itzulita

Finka: 60

#### **2 zki.dun Finka**

Higiezinaren deskribapena: Lazkaoko Elosegi kaleko 13 zki.an kokatutako "Luisenea" bezala ezagutzen den etxeko aurrekaldea.

Jabeak: Dolores Garín Igartua, María Dolores Agirre Garín, Luis Zugazti Orbe, Joaquín María Agirre Garín, Asier Ruiz Zapiain, Etor Mendia Zufiria, Naroa Arrieta Beltran, Juan Maria Begiristain Aranzasti, Yolanda Sanchez Cuadrado, eta Miren Lore Aramendi Valdivielso.

Okupatuko den azalera: 123,09m<sup>2</sup>

Inskribapena:

Finkak: 5440, 5441 eta 5442 (Folioak 64tik 68ra, Tomoa 1898, Liburua Lazkaoko 88).

Finkak: 5864, 5865, 5866 eta 5867 (Folioak 91tik 97ra, Tomoa 1951, Liburua Lazkaoko 93).

- 4.- 1954ko abenduaren 16ko Derrigorrezko Jabetza Kentze Legeak bere 52 artikuluan xedatutakoaren babesean, ukitutako ondasun eta eskubideen okupazioa egiteko Eusko Jaurlaritzari presakazko aitorpena onar dezala eskatzea.

...///...

...///...

#### IV.- OROBIONEREN BIRRERAIKUNTZA LANEN 15. ZERTIFIKAZIOA -

Orobione etxearen birreraikitze lanen obra zuzendaritza daramaten Juan Jose Garmendia Soria eta Roberto Gartzia Azpiri arkitektuek, lanen 15. zertifikazioa aurkeztu dute.

Zertifikazio honen zenbatekoa HOGEITA BI MILIOI ZORTZIREHUN ETA BI MILA LAUREHUN ETA HIRUROGEITA BEDERATZI (22.802.469,-) peseta (137.045,60 €)takoa da eta 2002ko otsailari dagokio.

Udal arkitekto eta arkitekto teknikoak egindako txostenean 15. zertifikazioan proiektuarekiko egon diren aldeak eta hauen zergatia azaltzen dute eta eman diren prezio desbideraketak onargarriak direla adieraziz 15. zertifikazio hau ontzat eman daitekela esaten dute.

Proiektuarekiko egondako aldeak proiektuaren aurrekontuarekiko bi milioi seirehun eta hirurogeita hamar mila zortzirehun eta laurogeita hemeretzi (2.670.899,-) pesetatako (16.052,43 €) gehikuntza suposatzen du.

Hau honela, gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 5 botu (EAJ, EA), aurkako 4 botu (EH) eta abstentzio batez (PSE-EE) zertifikazio hau onartzea erabakitzen du.

#### V.- BILOREKO GATAZKAREN AURREAN ALKATETZAREN MOZIOA -

Moziok honela dio:

“Bilore, S.A. enpresan emandako egoeraren inguruan, Lazkaoko Udalak:

- 1.- Langileen eskubideak, beraien jarraipena eta enpresaren bideragarritasun bermatuko dituen Lan-Plana burutzeko langileen ordezkari eta Bilore, S.A. enpresaren zuzendaritzaren artean hasitako negoziazio prozesuari bere elkartasuna adierazten dio.
- 2.- Eusko Jaurlaritzari negoziazio prozesua eta bi aldeen jokabideari jarraipen es-tu bat egitea eskatzen dio.”

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du langileen alde daudela baina moziok sinplea dela eta abstenitu egingo direla.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du beraiek ere langileak berriro enpresan ametituak izan daitezaren alde daudela eta moziok sinple xamarra izan baldin baliteke ere aurrerako urratsa dela eta alde bozkatuko duela.

Alkateak esaten du idatzi hau kanporatuak izan diren langileen bost herrietako lau alkateren bilkuratik ateratakoa dela. Esaten du baita ere egoeraren inguruan negoziazio prozesu bat ireki dela eta moziok honekin prozesu horri babesa eman nahi zaiola.

Irastortza zinegotziak (EH) esaten du sinplea zentzu batean esaten dutela, negoziazio prozesua aurretik eman behar zela eta moziok ez emate horren aipamenik ere ez duela egiten.

...///...

...///...

Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (EAJ, EA, PSE-EE), aurkako boturik gabe eta 4 abstentzioz (EH) mozioa onartzea erabakitzen du.

VI.- EUDEL-ETIK BIDALITAKO MOZIOA (DEMOKRAZIA ETA ASKATASUNA DEFENDATZEKO ETA EUSKAL GIZARTEAREN ANIZTASUNA ERRESPETATZEKO ADIERAZPEN ZIBIKOA).-

Mozioak honela dio:

**“Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko adierazpen zibikoa”**

Demokrazia eta hiritarrak inon estu-estuki elkarrekin bizi badira, Udaletxeetan gertatzen da halakoa; horrez gain, Udaletxeetan ere hiritarren parte hartzeko bidezko eskaera beste inon baino zuzenago hartzen da aintzat. Beraz, Udaletxeak sistema demokratikoaren eraikin osoa sostengatzen duten oinarriko zutabeak dira. Udaletxeen demokraziaren kalitatea degradatuz gero, sistema osoak horren eragina jasoko du.

Alkate eta Zinegotziek, udalerrri bakoitzaren herri-borondatearen legezko ordezkariak izateaz gain, guztion onuraren alde jarritako hiritarren balore zintzoenak adierazten dituzte. Haien hiritarren ongizatearen alde aritzeko kasurik gehienetan sakrifizio handiak egin behar izan dituzte, bai pertsona, bai familia bai lanbide aldetik. Zentzu horretan, gizalege altruista eta herriaren eta herrirako gobernua den demokraziaren balorerik jatorrenetarikoen adierazgarriak dira.

Hori dela eta, udal arloko eguneroko kezkez gaindi, hiritar askoren egoera larriak, horien artean ETAREN ekintza terroristek mehatxatu, kolpatu eta eraildako geure kideenak –batez ere Alderdi Sozialista eta Alderdi Popularrekoei dagokienez–, eta ideia politiko demokratikoen defentsarako adierazpen-askatasunak jasandako erasoek, demokrazia eta askatasunaren aldeko erantzun irmo eta solidarioa eskatzen digute, baita euskal gizartearen aniztasunarekiko begirunearen aldekoa ere.

Errealitate honetaz jabetuz, joan den otsailaren 22an Ajuria-Enean izandako Alderdi Politiko eta Erakunde Publikoen ordezkarien arteko bileran, udal esparruan demokrazia eta askatasunaren defentsarako konpromisoen garapena geure erakunde honen esku utzi izan zen, baita aniztasunarekiko begirune eta mehatxatutako pertsonetikiko defentsa eta elkartasun mailako ekimenak ere, ahalik eta inplikazio politiko eta sozial handiena bilatuz. Hori guztia horretarako propio sortutako Segurtasun-Batzordeak –bertan Alderdi Politikoek ere parte hartuz– bultzatzen diharduen erabakiekin koordinaturik.

Une honetako larritasunaz jabeturik, geure Udaletxe guztietan udal-demokraziarekin hartutako konpromisoa finkotasunez berriztu behar dugulakoan gaude, gauza bera eginez Alkate, Zinegotzi eta mehatxatutako pertsonen askatasun, osotasun eta segurtasunei nahiz terrorismoaren biktima guztiei dagokienez.

Hori dela eta, adierazpen hau izenpetu dugun euskal alderdi politiko eta udal ordezkariok jendaurrean berretsi nahi dugu orok bere erantzukizun-eremuan lan egingo dugula Demokrazia eta Askatasuna eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatu eta defendarazteko. Egin ere, ondoko printzipioen arabera egingo dugu.

**Printzipioak**

...///...

...///...

- 1.- Gizon-emakumeen oinarrizko eskubideak errespetatu eta defendatzea da herritarren eta Herrien antolamendu eta bizikidetzarako oinarria.
- 2.- Politikoki justifika ezinak dira, bai eta etikoki gaitzesgarriak ere, pertsonen hilketa helburu duten indarkeria ekintzak.
- 3.- Giza-Eskubideen Deklarazio Unibertsala berretsi egiten dugu, Bizitzarako Eskubidea horien arteko aurrenekoa izanik, eskubide hori agertu ezean ezin baita bestelakorik gauzatu. Adierazpen horri eutsiz, ezin da inor torturatu, txarto tratatu, iraindu edo mehatxatu, ez eta jazarri edo eraso ere, dituen ideiak direla-eta edo ideia horiek jendaurrean demokratikoki ordezkatu eta defendatzearen.

Horregatik, bizitza, askatasun eta demokraziaren aurka –eta hortaz, giza-eskubide guztien aurka– doazen ETArek ekintza terroristak gaitzetsi egiten ditugu.

- 4.- Euskal gizartearen dagoen ideia, egitasmo eta sentimendu aniztasuna aberasgarri da kultura, politika nahiz gizartearentzat. Horrenbestez, babestu eta errespetatu egin behar da, eta, horretarako, gizarte hori osatzen duten kide guztien askatasuna defendatu behar da, beti ere, bortxarik gabe adieraz ditzaten beren asmo pertsonal eta politikoak, bidezkoak guztiak ere.
- 5.- Gizarte demokratiko batean, egitasmo politiko demokratiko oro defendatu, garatu eta, hala badagokio, gauzatu behar da, baldin eta herritarren gehiengoaren babesa badauka. Beti ere, errespetatu egin behar da, baldintza berdintasunean, aukera politiko desberdinen ordezkari gisa askea eta defentsa eraginkorra. Xede horrekin, Zuzenbide Estatu bateko arau demokratikoen eta politikak dituzten mekanismoak baino ez dira erabiliko borondate kolektiboa eratzeko.
- 6.- Aniztasun politikoa eraginkortasunez eta modu kontsekuentean errespetatzea, beraz, nahitaezkoa da, gure herrietan guztiok elkarrekin biziko bagara.

### Konpromisoak

Printzipio horietan oinarrituta, alderdi politikoek eta euskal alkate eta zinegotziek gure borondatea adierazten dugu:

- 1.- **Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko udal akordioa** onartzea. Helburu hori lortzeko behar diren neurri ekonomiko, arau-emaile, politiko eta sozialak jasoko ditu akordioak, eta, era berean, euskal gizartearen era aktiboan inplikatu du akordioaren garapenean.

Udal akordio horretan ondoko konpromisoak jasoko ditugu:

- Bizitzarako eskubidea defendatzeak duela lehentasuna berrestea, horixe baita bizikidetzarako oinarrizko printzipioa.
- Gizon-emakume guztien oinarrizko eskubideak errespetatu eta errespetatzea.
- Zuzenbide Estatu bateko –demokraziaren oinarrizko elementua den aldetik– eta beronen erakundeak defendatzea, horiek baitira herritarren borondate demokratikoen isla.
- Egitasmo politikoak lortzeko, indarkeria bortxa gisa erabiltzeari beren beregi uko egiten dieten egitasmo politiko guztien bidezkoasuna eta legezkoasun demokratikoa defendatzea.

...///...

...///...

- ETArri exijitzea errespetatu dezan euskal gizartearen borondatea eta behin betiko utz dezan indarkeria.
- Elkartasun aktibo eta aintzatespen etiko, sozial eta materialeko ekimenak garatu, indarkeria, intolerantzia eta giza eskubideen nahiz eskubide zibiko eta politikoen haustea jasan dutenen eta jasaten dutenen alde. Are gehiago, baita judizialki ere, Korporazio gisa, norbaitek mota honetako edozein estortsio jasaten duenean.
- Herritar guztien eskubideak zaindu eta defendatzea eraso, urratu edo baldintzatu nahi dituztenen aurrean, eraturako udal gobernuaren ezaugarriak edo udalerrri bakoitzean dauden indarrak gorabehera.
- Herritarren parte-hartze eta ordezkaritza politikorako eskubideak askatasunez erabiltzea udal esparruan, beti ere, aukera politiko bidezko eta demokratiko guztien aniztasuna errespetatuz eta, elkartasunez, beraien lan publikoa bermatuz, izan daitezkeen legez kanpoko ekintza, mehatxu, larderia edo erasoaren aurrean.

2.- Toki esparruan demokrazia eta askatasunaren aldeko printzipioak eta aniztasunaren eta giza eskubideen errespeturako printzipioak zabalitzea, politika eta gizartearen inplikazio ahalik eta handiena bilatuz ezarpen praktikoa eraginkortasunez gauzatzeko, udalez udal eta herriz herri.

Ondorio horietarako, udalek demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko toki foroa sustatuko dute. Foroa zabalik egongo da herritarrek eta elkarteek parte har dezaten, eta aldizka bilduko da herri bakoitzeko sentsibilitate sozial eta politiko desberdinen arteko elkarrizketa eta topaketa gunea sustatzeko, sentsibilitate horiek honako adierazpen zibikoan azaldutako printzipio eta konpromisoekin eraginkortasunez konprometituak direlarik

- Ideia demokratikoak direla-eta mehatxatuta edo errepresaliaturik dauden pertsona edo erakundeei babes sozial eta instituzionala ematea ahalbidetuko duten ekimenak garatuko ditu;
- Demokrazia eta askatasuna eta herrian dauden aukera politikoen aniztasunarekiko begirunea errespetaraziko du.

3.- Edozein akordio politiko lortzekotan, demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko adierazpen zibikoan azaltzen diren printzipio eta konpromisoak modu eraginkorrez onartu eta defendatzea, ezinbesteko oinarri politikoa delakoan gaude.”

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du momentu honetan mozio hau aurkeztea gutxienez ridikuloa dela ze demokrazia eta askatasunari errespeto eskatzen ari dira eta mozio honekin egiten ari direna zinegotzi batzuei babesa eman eta besteak baztertzea dela. Gaineratzen du mehatxatuta dauden zinegotziak ez direla PP eta PSOEkoak, beraiek ere mehatxatuta daudela eta hori oraingoz ze behar bada hemendik pixka batera eta gertatzen ari diren gauzak ikusita beraiek ere (EAJ eta EA) egongo direla eta guzti horregatik aurka bozkatutako dutela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du mozio hau gutxienez ere beharrezkoa dela zenbait alderdi politikoetako zinegotziak jasaten ari diren egoera ikusita, non politika egitea zigortzen ari den eta zigorra kasu askotan zinegotzi hauen ondasunen aurka eraso egitea da eta mehatxuak eta beste askotan heriotza. Gaineratzen du iruditzen zaiola udalen egitekoa dela bere partaideei babesa ematea eta alde horretatik mozio hau erabat beharrezkoa dela eta bere botoa aldekoa izango dela.

...///...

...///...

Alkateak esaten du ez zaiela ridikuloa iruditzen eta helburua, ulertu nahi bada ala ez, asmoa ez dela baztertzea eta hori hurrengo mozioan oso garbi azaltzen dutela.

Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (EAJ, EA, PSE-EE) eta aurkako 4 botuz (EH) mozioa onartzea erabakitzen du.

## VII.- BERE ILEGALIZAZIOAREN AURKA BATASUNAREN MOZIOA ETA ALKATETZAREN MOZIO ALTERNATIBOA.-

Batasunaren mozioak honela dio:

### **"BATASUNAREN ILEGALIZAZIOAREN AURKAKO MOZIOA**

Azken hilabeteetan, maiz agertzen ari da Espainiako Gobernuaren bozeramaileen ahotik, Batasuna legez kanpo uzteko asmoa. Ez dira berriak gure herrian horrelako urrats errepresiboak; gerra zikinari, torturei, heriotza zigorra extrajudizialari, atxiloketei eta kartzelarazteiei ezezik, oldartze sasijudizialari ere bidea eman zaio azkenaldi honetan, legez mozorrotutako errepresioa, alegia.

Estatu espainiarraren izaera errepresibo eta faxista, askotan ageri da eta guztiok, gure herrietan, gertutik jabetzeko aukera izan dugu, tamalez. Herriaren nahiari, askatasuna eta bakearen nahiari, Estatuak gogor erantzun diote historikoki, errepresio politikoaren bidez, Euskal Herrian salbuespen-egoera ezarriz. Hil eta gero, sortutako erregimen birmoldatu honetan, lege eta Trigunal berezi ugari ezagutu ditugu, soilik euskal herritarren borrokari aurre egiteko asmoz.

Oraingo honetan, Euskal Herriari inposatutako marko juridiko-politikoa agortu deanean, gehiagorik ematen ez duenean eta gizartearen gehiengo zabal batek argi eta garbi autodeterminazioaren alde jotzen duenean, Espainia, gure eskubide zibil eta politikoak aitortu beharrean, berriro ere, jauzi errepresibo bat garatzen ari da. Euskal gizarte erakundeak, elkarteak eta erakunde politiko ezberdinak legez kanpo utziaz eta euren kideak kartzelaratzearekin batera, 200.000 euskal herritarren ordezkari politikoak ezabatu nahi dute, Batasunaren ilegalizazioaren bitartez. Tamainako eraso, berriro ere, Euskal Herri osoari zuzentzen zaio eta oraindik ere, gizartearen haustura bortitz hau eraginez, egon daitezkeen ondorio instituzional, politiko eta sozialak, neurtezinak dira.

Batasuna ilegalizatzeko, Espainiako Gobernuaren egitasmo honen aurrean, gizartearen kezka eta larritasuna egunero azaltzen ari da, eragile ezberdinek jarrera plazaratuz. Gizarteak ere, beraz, euskal erakundeei eta ordezkari politikoei jarrera agertzea eskatzen die. Honenbestez, (legebiltzarrak, udalak, biltzar nagusiak) hartzen ditu ondoko

ebazpenak:

- 1) Indar politiko guztiek Euskal Herriko bizitza politiko, sozial eta kulturean berdintasun baldintzetan parte hartzeko eskubidea eta beharra dutela. Beraz, aukera politikoan aniztasuna errespetatu behar da.
- 2) Ez Batasuna ezta inolako indar politikorik ere, ezin direla ilegalizatuak eta jarduera politikotik alboratuak izan, Euskal Herriaren demokrazia eta euskal herritarren eskubide zibil eta politikoak lortzeari ekiten diotenak ezabatuz, alderdi batzuen jokaeraren moldaketa dela medio.

...///...



...///...

- 3) Euskal Herriko gainerako antolakunde politikoekin berdintasunean parekatuz, Batasunaren partehartze politiko osoa ziurtatu ahal izateko, beharrezko ekintza guztiak gauza ditzan.
- 4) Mozio (Legez besteko) proposamen hau, ondoko pertsoneri helaraziko zaie: Botere Judizialaren Independentziarako Errelatoreari (Nazio Batuen Giza-Eskubideen Batzordekoa); Adierazpen Askatasunerako Errelatoreari (Nazio Batuen Giza-Eskubideen Batzordekoa); eta Europako Giza-Eskubideen Epaimahaiari."

Alkatetzaren mozio alternatiboak honela dio:

"Lazkaoko Udalak:

- 1.- Adierazten du, koherentzia demokratiko hutsez, oinarrizko eskubide eta askatasunen defentsak erabatekoa behar duela izan, eta eskubide eta askatasun horiek gizaki guztiei bermatu behar zaizkiela, eskubide eta askatasun horiek gozatuko dituen gizaki edo taldearekiko sinpatia edo iritzi politikoa alde batera utziaz.
- 2.- Agerian uzten du erakunde politikoaren ilegalizazio-prozesuak zinez garrantzitsuak diren eskubide eta askatasunei eragiten dietela eta urratzen dituztela. Izan ere, Espainiako Estatuaren Konstituzioak bere lehen tituluko bigarren kapituluko lehenengo atalean bermatzen dituen ideologia-askatasuna, adierazpen-askatasuna, elkartzeko eskubidea edota hiritarrentzako parte-hartze eskubidea kalteturik geratzen dira.
- 3.- Baieztatzen du aipaturiko ilegalizazio-prozesuek, ikuspegi juridikotik ere, oinarri irris-takorra dutela. Talde armatu bati laguntzearen edo talde armatuko kide izatearen delituaren kasuan legeak berak aurreikusten dituen gertakarietatik haratago iritsi nahi du egiten ari den interpretazioak, gizaki zehatzen aurka ez ezik eragile kolektiboen aurka egiten baitu eta, gainera, gure gizartean erabat sustraiturik dauden hautu ideologiko edo politiko eta adierazpen eta elkartzeko moduen aurka. Legea interpretatzeko eta aplikatzeko modu hau ezin dugu inola ere gure egin, eta, beraz, ilegalizazio-prozesu hauen aurkako gure erabateko ezadostasuna adierazi nahi dugu.
- 4.- Bere kezka eta salaketa agertzen du testuinguru honetan babesgabatasuna sortzen ari delako, legearen interpretazioan zehaztugabetasuna agertzen delako eta honek, oinarrizko eskubide eta askatasunen atalean, arbitrariotasuna ekartzen duelako. Askatasunen atal honetan suertatzen den nahas-mahasak eta definiziorik ezak giza eskubideen inguruko kultura erlatibista bultzatzen du, batez ere oihartzun handiko testuinguruan gertatzen delako, eta erlatibizazio hau biziki larria da gurea bezalako egoera soziopolitiko korapilatsuan.
- 5.- Berretsi egiten du gertaera hauek eragin negatiboa dutela, era berean, gure gizartearen gehiengoak babesten duen helburua gauzatzeko: elkarbizitza politiko baketsua, demokratikoa eta bere aniztasunaren adierazpidea bermatuko duena ahalbidetzea.
- 6.- Gaitzetsi egiten ditu erakunde politikoak ilegalizatzeko martxan dauden ekimenak eta exijitzen du ekimen hauek gelditzea edo, kasua hori bada, baliogabetzea."

...///...

...///...

Alkateak gehitzen du mozio hau Eusko Legebiltzarrean onartutakoa dela eta horregatik aurkeztu duela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) honako hau irakurtzen du:

**“PARTIDU POLITIKOEN LEGE ORGANIKOAREN INGURUAN ALDERDI SOZIALISTAK AZALDU DUEN BERE ALDEKO JARRERARI BURUZKO ARGUMENTUAK:**

- 1.- Sozialistek egindako zuzenketei esker, Alderdi politikoen Lege Organikoa konstituzioko printzipioetara hobeto egokitzen da eta Diputatuen Kongresuan kontsensu zabalez onartuko da.
- 2.- Mozio hauei esker, legeak indarkeria eta terrorismoari lotutako jarduerak debekatzea lortu da, inoiz ere ez ideiak. Legea eskutan duela, alderdi politiko bat egon daiteke Konstituzioan jartzen duen xede baten kontrako edozein xederen alde (Euskal Herriaren independentzia, Errepublika, autodeterminazio eskubidea); baina horretarako demokratikoak ez diren bitartekoak ezin dira erabili. Era berean, itxuraz Konstituzioaren xedeak alderdiaren xedetzat dituzten alderdi politikoak ilegalak izango dira xede horiek lortzeko demokratikoak ez diren bitartekoak erabiltzen baldin badituzte. Adibidez, monarkiaren aldeko alderdi politiko bat ilegal deklaratu izan daiteke mugimendu errepublikarren kontra mehatxuak eta indarkeria sostengatzen baditu. Helburua ez da ideiak, xedeak, proiektuak debekatzea (nahiz eta Konstituzioaren kontrakoak izan), baizik eta demokratikoak ez diren jarduerak debekatzea. Eta horrela berariaz agertzen da, PSOEn eskariz, bere aitzinsolasean. Lege hau ez da nazionalismoaren edo independentismoaren kontra. Terroristen mafiak sostengatzen dituzten partidu politikoen kontrako legea da, berdin diolarik bere ideiak zein zeinutakoak diren.
- 3.- Alderdien legeak, antolatutako krimenaren helburuei men egiten dieten eta erakunde publikoak herriaren borondatea ordezkatzeko dutenen beldurra eta hilketak sostengatzeko erabiltzen dituzten alderdi politikoen irainekin bukatu nahi du. Duintasun demokratikoaren arazo bat da: Euskadin faxisten ezarritako salbuespen egoeran ezin gara geldirik geratu.
- 4.- Adostutako emendakinetan idatzita dagoenaz, Legea arrazoizko berme konstituzionalez janzten da. Sozialistei esker, indarrean sartu aurretiko gertaerei atzeraeraginkortasunez Legea ez ezartzea bermatu da. Honela, konstituzioak jasotzen duen arau hertsakorren atzeraeraginkortasun ezaren printzipioa bermatu da. Hau dela eta, lege honek auzipetuko ditu legea indarrean sartu ondoren gertatu diren krimena eta izuarekin erlazioa daukaten gertaera larri errepikakorrak. Baita ere, zehaztu egin dira zehaztasun falta handiko ilegalizazio aukerak.
- 5.- Parlamentuak zuzenean Batasunaren ilegalizazioa ez dezala erabaki lortu da. Parlamentuak jar dezake alderdi politikoaren ilegalizazioa sustatzen duen Gobernu Botere Judizialaren aurrean, hau delako botere banaketaren printzipioaren eta eskumen erreserbaren arabera ilegalizatu dezakeen bakararra. Botere Judizialak erabakiko du ilegalizatuko den bai ala ez Zuzenbidearen arabera.
- 6.- PSOEk espresuki onartzen du Lege hau terrorismoaren kontrako tresna bat bezala. Herritarrek jakin behar dute lege honekin ez direla bukatuko terroristen mehatxuak: baina, gauzak zaildu egiten dizkie terroristei eta erakundeetatik iraintzen, beldurtzen eta beren jarduerarekin terroristen mehatxua osatzen dutenei.”

...///...

...///...

Guzti honen ondoren bozketan jartzen da Batasunaren mozioa eta Osoko Bilkurak, aldeko 4 botu (EH) eta aurkako 6 botuz (EAJ, EA, PSE-EE) berau ez onartzea erabakitzen du.

Jarraian bozketan jartzen da Alkatezaren mozio alternatiboa eta Osoko Bilkurak aldeko 5 botu (EAJ, EA), aurkako botu bat (PSE-EE) eta 4 abstentzioz (EH) mozioa onartu egiten du.

#### VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak esaten du Tokiko Agenda 21 dela eta, horren inguruko azalpen bilera izango dela datorren ostegunean, iluntzeko 7etan.

#### IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko 8ak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

...///...